

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure funtsezko bazkideak gu geu gara, izan ere, gure taldeko partaide bakoitzak abilezia bat eskaintzen dio gure proiektuari. Naroak salmentarako abilezia handia du, eta hura da gure baterien salmenta egiten duena, ekonomia ikasi du eta marketing-eko praktikak egin baititu; beraz, finantzaketak eramango ditu. Amarak ideia onak emateaz gain, bere nebak energia berriztagarrien gradua ikasi du, eta gure proiektuaren hainbat ideia proposatu dezake. Anek auto tailer familiarra du, eta bere familiak baterien txertaketaz arduratu daiteke. Nagorek, aldiz, teknologia oso ondo kontrolatzen du, eta IKT kontuaz arduratuko da, webgune bat sortuz, kasu.



Horrez gain, ezinbesteko bazkide bat izango dugu: Tesla. Austinen (Texas) egoitza duen enpresa estatubatuarra da, eta Elon Musk du buru. Auto elektrikoak, ibilgailu elektrikoek propulsiarako osagaiak, eguzki-sabaiak, eguzki-instalazio fotovoltaikoak eta etxeko bateriak diseinatu, fabrikatu eta saltzen ditu. Hauekin elkartzean, hainbat abantaila ekarraziti dezake, izan ere, kotxe elektrikoek salmenta eramaten dute. Gainera, gure bateria portatila erostearekin batera, deskontuak jasan daitezke kotxe elektrikoek erosketan.

Hornitzaileen aldetik, ordea, Iberdrolaren laguntza izan dezakegu. Iberdrola, S.A. Espainiako enpresa bat da, eta Bilbon du egoitza, Euskal Herrian, Espainian. Energia ekoitzi, banatu eta merkaturatzen duen enpresa-taldea da. Beraz, modu horretan, energia baliabide eskeini gaitzakete eta gure baterientzat beharrezkoa den elektrizitatea erosiko diegu.

